

**MERKABUGATI S.A-ren
instalazioetan dauden jabari
publikoko ondareen emakida**

**Concesión de bienes de dominio
público situados en las
instalaciones de MERKABUGATI
S.A.**

HITZARMENA

Donostian, a 2021eko de maiatzaren 18an

Aipatutako tokian eta datan eta San Marko Mankomunitateko Idazkariaren aurrean,

BILDUTA

Alde batetik, Loreto Osa Ocón, 44126008W NAN zenbakia duena, San Marko Udal Mankomunitateko Lehendakari gisa, haren izenean eta ordezkari gisa, Mankomunitateko Batzarrak 2020ko ekainaren 19an emandako ahalmenen arabera.

Eta, beste alde batetik, José Antonio Ibañez Parduales, 08924942-E NAN zenbakia duena; "MERKABUGATI S.A."-ren Administrazio Kontseiluko lehendakaria, egintza honetarako ahaldundua, 2020ko otsailaren 26ko Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiz.

Bi alderdiek, egintza honen bitartez derrigortzeko gaitasuna elkarri aitortuz, emakida-hitzarmen hau gauzatzea erabaki dute, honako baldintzekin:

AURREKARIAK

LEHENA: San Marko Mankomunitatea tokiko erakunde bat dela eta, besteak beste, honako helburuak dituela: "Mankomunitatea osatzen duten herrietan sortutako hondakinak edo zaborrak deuseztatzea edota tratatzea", Oiartzun, Lezo, Pasaia, Errenteria, Donostia, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen; "zaborra deuseztatzearekin lotutako alderdi guztiei irtenbide integral bat ematea, bilketa eta garraiotik guztiz suntsitu arte".

CONVENIO

En San Sebastián, a 18 de mayo de 2021

En el lugar y fecha señalados, y ante el Secretario de la Mancomunidad de San Marcos,

REUNIDOS

De una parte, Loreto Osa Ocón, con DNI 44126008W en su condición de Presidenta de la Mancomunidad Municipal de San Marcos, en nombre y representación de la misma conforme a las competencias que le ha conferido la Junta de la Mancomunidad en sesión celebrada el 19 de junio de 2020.

Y, de otra parte, Don José Antonio Ibañez Parduales, con D.N.I. 08924942-E; Presidente del Consejo de Administración de "MERKABUGATI S.A." facultado para este acto por acuerdo de Consejo de Administración de fecha 26 de febrero de 2020.

Ambas partes, reconociéndose mutuamente capacidad bastante para obligarse mediante el presente acto, convienen en celebrar el presente convenio de concesión de acuerdo con los siguientes términos:

ANTECEDENTES

PRIMERO: La Mancomunidad de San Marcos es una entidad local que tiene como fines, entre otros, "la eliminación y/o tratamiento de los residuos o basuras generados en los municipios pertenecientes a la Mancomunidad", a saber, en Oiartzun, Lezo, Pasaia, Errenteria, Donostia/San Sebastián, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil, así como "la solución integral de todos los aspectos relacionados con la eliminación de las basuras, desde la

recogida y transporte, hasta su completa destrucción”.

BIGARRENA: “MERKABUGATI S.A.” Sozietatearen helburua “MERKABUGATI” izeneko eraikina kudeatzea dela, non 1998 urteaz geroztik, fruta eta barazkien 21 handizkari beren jarduera burutzen ari diren.

HIRUGARRENA: Jarduera hau garatzean, handizkariak sortzen dituzten hondakinak zein merkatuko bezeroek eta mankomunitatearen eremuko beste sortzaileek entregatzen dituztenak, MERKABUGATI S.A.ren instalazioetan horretarako sortutako *fruta eta barazki kutxen klasifikazio eta birziklatze plantan* tratatzen dira, honako ekipo hauek ditu planta horrek:

- Zama zinta
- Bereizteko zinta
- Kartoizko linearen zinta
- Egurrezko kutxen trinkotzaile estatikoa
- Kartoizko kutxen trinkotzaile estatikoa
- Plastikozko kutxen auto-trinkotzailea
- Egurrezko paleten kutxa irekia
- Poliexpaneko kutxa irekia
- Egitura metalikoa eta teilapea.

LAUGARRENA: Fruta eta barazki kutxen klasifikazio eta birziklatze planta hau mankomunitatearen jabetzakoa da, eta sorreratik, MERKABUGATI S.A.k kudeatzen du.

BOSGARRENA: Tresneria hauek erabiltzen dituzten langileak MERKABUGATI S.A.-k kontratatuak dira, eraikinaren garbiketa prokorraren zerbitzua eskaintzen duen azpikontrataren bitartez.

SEIGARRENA: Klasifikazio eta birziklatze planta honi esker, azken urteetan bide publikoan eta mankomunitateko kide diren udalek kudeatutako edukiontzietan utzitako fruta eta barazki kutxen hondakin kopurua asko murriztu dela egiaztatu da.

SEGUNDO: Que “MERKABUGATI S.A.” es una Sociedad que tiene como fin la gestión del edificio denominado “MERKABUGATI” en el que 21 asentadores o mayoristas de fruta, verduras y hortalizas, vienen desarrollando dicha actividad de desde 1998.

TERCERO: En el desarrollo de esta actividad, los residuos que se producen por los asentadores así como los entregados por los clientes del mercado y otros productores del sector del ámbito de la mancomunidad, son tratados en la *planta de clasificación y reciclaje de cajas de frutas y verduras* creada para tal fin en las instalaciones de MERKABUGATI S.A. quien cuenta con los siguiente equipos:

- Cinta de carga
- Cinta de triaje
- Cinta de línea de cartón
- Compactadora estática de cajas de madera
- Compactadora estática de cajas de cartón
- Autocompactor de cajas de plástico
- Caja abierta pallets de madera
- Caja abierta poliexpan
- Estructura metálica y tejavana.

CUARTO: Esta planta de clasificación y reciclaje de cajas de frutas y verduras es propiedad de la Mancomunidad, la cual se gestiona por MERKABUGATI S.A. desde su creación.

QUINTO: El personal que utiliza estos equipos está contratado por MERKABUGATI S.A. por medio de la subcontrata que presta el servicio de limpieza general del edificio.

SEXTO: Gracias a esta planta de clasificación y reciclaje, se ha constado en los últimos años que se ha reducido drásticamente la cantidad de residuos de cajas de frutas y verduras depositadas en la vía pública y contenedores gestionados por los ayuntamientos miembros de la mancomunidad.

Planta hau sortzeak konponbide egokia

La creación de esta planta ha supuesto una

eman dio hondakin hauei. Itzulketa eta itzulkinaren alderantzizko logistika bat sortzea lortu da, sektoreko merkatarietara euren hondakinak egoki kudeatzek aukera ematen diona.

Jarduketa honi esker, ekonomia eta ingurumen aurrezpen handi bat lortzen da bi aldeentzat; bai Merkabugatirentzat, hondakinen kudeaketa kostuengatik, baita mankomunitateko kide diren udalentzat ere; ondorioz, sortutako hiri-hondakinen kopurua murrizteko helburu globala betetzen laguntzen da.

ZAZPIGARRENA: Testuinguru honetan, guztion mesedetan, hitzarmena burutzeko MERKABUGATI S.A.-k ondorengo dokumentazioa gehitu du:

a) Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak eta, hala badagokio, ordezkaritza (kopiak):

- elkartearen ordezkatzen duen pertsonaren NAN eta ahalordeak.
- elkartearen eskriturak eta IFK.
- Elkartearen Estatutuak.

b) Emakidadunak erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu izanaren egiaztatzea (ingurumen kalteak barne), barne hartzen dituen hirugarrenei eta fruta eta barazki kutxen klasifikazio eta birziklatze plantan sor daitezkeen kalteak erantzungo dituenak.

MERKABUGATI S.A.k mankomunitateari kontratatutako aseguruari buruzko baldintza orokorren, berezien eta espezifikoen kopia bidaliko dio, eta baita polizaren ordainagiria aurkeztu ere. Urtero, ordainagiria bidali beharko dio.

b) Ziurtagiriak: zerga eskakizunak eta Gizarte Segurantzari buruzkoak eguneratuak dituela adierazten duen ziurtagiria. Halaber, dagokion epigrafean jarduera ekonomikoen zergan alta emanda dagoela adierazten duen ziurtagiria; alta aurkeztu beharko da, jarduneko ekitaldiari buruzkoa bada, edo historikoaren ziurtagiria, gainerako kasuetan.

solución adecuada a este residuo, se ha conseguido crear una logística inversa de devolución y retorno que permite a los comercios del sector una gestión adecuada de sus residuos.

Con esta actuación se consigue un importante ahorro económico y medioambiental para ambas partes, tanto para Merkabugati en el coste de la gestión de residuos, como para los ayuntamientos miembros de la mancomunidad; contribuyendo así al cumplimiento del objetivo global de reducción de la cantidad de residuos urbanos generados.

SEPTIMO: En este contexto, en aras de formalizar este convenio, MERKABUGATI S.A. ha aportado la siguiente documentación:

a) Documentos acreditativos de la capacidad de obrar y, en su caso, la representación (copias):

- D.N.I. de la persona que represente la asociación y poderes.
- Escritura de la asociación y CIF.
- Estatutos de la asociación.

b) Acreditación de haber contratado un seguro de responsabilidad civil (incluidos daños medioambientales), que cubra los daños a terceros y daños que puedan producir a la planta de clasificación y reciclaje de cajas de frutas y verduras.

MERKABUGATI S.A. deberá remitir a la mancomunidad, una copia de las condiciones generales, particulares y específicas que configuran el seguro de responsabilidad civil contratado, y la acreditación de haber abonado la citada póliza. Anualmente deberá remitirse dicha acreditación.

c) Certificados de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de seguridad social, así como el de estar de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, en el epígrafe correspondiente, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o el certificado del histórico I.A.E., en los demás casos.

Ziurtagiri hauek ere urtero bidali beharko dira.

Estos certificados deberán también remitirse anualmente.

Aurrekoen ondorioz, bien adostasunez, emakida-hitzarmen hau formalizatzen dute, honako klausulekin:

Por consiguiente, las partes formalizan, de común acuerdo, el presente Convenio de Concesión conforme a las siguientes:

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENA: Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua Merkabugati S.A.ren instalazioetan dauden mankomunitatearen jabari publikoko ondasunen lagapen-hitzarmena burutzea da, baldintza batzuk ezartzeko aurrekarietako helburuak lortzeko lankidetzan; hots, San Marko Mankomunitateko udalerrietan sortutako fruta eta barazki kutxen hondakina ezabatzea, plastikozko, zurezko, paperezko, kartoizko eta poliexpaneko kutxak bildu, sailkatu eta tratatzeko, horiek mankomunitatearen esparruan birziklatzea sustatzeko.

PRIMERA: Objeto del Convenio

El presente Convenio tiene por objeto la concesión de los bienes de dominio público situados en la planta de Merkabugati SA, para fijar los términos y condiciones bajo los cuales se colaborará en la consecución de los fines previstos en el expositivo anterior; a saber, la eliminación del residuo de cajas de frutas y verduras generados en por los productores pertenecientes al ámbito de la mancomunidad, mediante la recogida, selección y tratamiento de las cajas de material plástico, madera, papel, cartón y poliexpan, impulsando el reciclaje de los mismos en dicho ámbito.

BIGARRENA: San Marko Mankomunitateko espezifikoak

San Marko konpromiso

SEGUNDA: Compromisos específicos de la Mancomunidad de San Marcos

Hitzarmen honen esparruan, San Markos Mankomunitateak honako konpromisoak hartzen ditu:

En el marco del presente Convenio, la Mancomunidad de San Marcos asume los siguientes compromisos:

1. Fruta eta barazki kutxen klasifikazio eta birziklatze plantako jabari publikoko instalazioak Merkabugati S.A.ri lagatzea.
2. MERKABUGATI-k antolaturiko barneko ekintzetan parte hartzea, hau da, barnean sortzen diren eta bere instalazioetan kudeatzen diren hondakinak behar bezala sailkatzea eta minimizatzea, hondakin mota hauen sortzaile potentzialetatik eratorriak.
3. Kartoia eta egurra trinkotzeko makinak mantentze-lanak.
4. Materialak biltegitratzeko kaxa irekiak alokatzea, hala nola, zurezko paletak eta plastiko eta poliexpaneko kutxak.
5. Honako frakzioen kudeaketa eta

1. La concesión de las instalaciones de dominio público situados en la *planta de clasificación y reciclaje de cajas de frutas y verduras*
2. Colaborar en las acciones internas en la correcta separación y minimización de residuos generados en interno por parte de MERKABUGATI y los que gestiona en sus instalaciones cuyo origen está en los potenciales generadores de este tipo de residuos.
3. Mantenimiento de las compactadoras de cartón y madera.
4. Arrendamiento de las cajas abiertas de almacenamiento de materiales, tales como pallets de madera, y cajas de plástico y poliexpán.
5. Gestión y transporte de las siguientes

garraioa:

- Zurezko kutxak
- Zura (kutxa eta paletak).
- Plastikozko kutxak.
- Poliexpán kutxak.

fracciones:

- Cajas de cartón
- Madera (cajas y pallets).
- Cajas de plástico.
- Cajas de poliexpán.

6. Bilketa eta biltzeko maiztasuna planifikatzea, azpiegitura behar bezalako egoeran egon dadin.

6. Planificación de la recogida y su frecuencia de tal manera que se mantenga la infraestructura en condiciones correctas.

HIRUGARRENA. - MERKABUGATI S.A.-ren konpromiso espezifikoak

Hitzarmen honen esparruan, MERKABUGATI S.A.-k honako konpromisoak hartzen ditu:

1. Instalazioak kudeatzea, hauen kostua eta hondakinak tratatzeaz arduratuko diren langileak bere gain hartuz.
2. Argindarra, ura eta instalazioen eta makineriaren aseguruak kontratatzea eta hauen gastua bere gain hartzea, baita hauen funtzionamendutik eratorritako gainontzeko gastuak ere.
3. Urtero, mankomunitateari kontraturiko erantzukizun zibilaren aseguruaren ordainagiria bidaliko dio eta, gainera, aseguruaren baldintza orokorretan, berezietan eta espezifikoetan edozein aldaketa badago, mankomunitateari jakinaraziko dio. Era berean, urtero bidali beharko ditu gizarte segurantzako eta ogasuneko ziurtagiriak eta AEZ historikoaren agiria.
4. Hondakinak bereizteko azpiegituren mantentze eta konponketa lanak, Merkabugati SAri ondorio guztietarako lagatzen diona, baita egitura metalikoa eta estalpea ere.
5. Hondakinen kudeaketa egiten den instalazioak San Markos Mankomunitateko erabiltzaileentzat irekiak izatea, gutxienez, ordutegi honetan:
-Astelehenetik-ostiralera: 5:45-11:30
20:00-21:00

TERCERA. - Compromisos específicos por parte de MERKABUGATI S.A.

En el marco del presente Convenio, el MERKABUGATI S.A. asume los siguientes compromisos:

1. Gestionar las instalaciones, asumiendo su coste, el personal dedicado al tratamiento de residuos.
2. Contratar y asumir los costes de la electricidad, el agua, los seguros de las instalaciones y maquinaria, y todos los demás costes asociados al funcionamiento de las mismas.
3. Anualmente, deberá remitir a la mancomunidad el documento acreditativo del abono del seguro de responsabilidad civil contratado y deberá comunicar a la mancomunidad cualquier variación que se produzca en las condiciones generales, particulares y específicas que configuran el seguro. Igualmente deberá remitir anualmente los certificados de seguridad social, hacienda y el histórico del IAE.
4. Mantenimiento y reparación de la infraestructura de triaje cedida en uso a Merkabugati SA a todos los efectos, así como la estructura metálica y tejavana.
5. Mantener abiertas las instalaciones en las que se desarrolla la gestión de los residuos para los usuarios del ámbito de la Mancomunidad de San Marcos, al menos durante el siguiente horario:
-Lunes-Viernes: 5:45-11:30
20:00-21:00

-Larunbatak: 06:00-09:00


-Sábados: 06:00-09:00

Ordutegi honek aldaketak jasan ditzake erabiltzaileen beharren arabera, aurrez Mankomunitatearekin adostuta.

Este horario podrá ser modificado según las necesidades de los usuarios, previo acuerdo con la Mancomunidad.


6. Izaera publikoko azpiegituren bitartez, frakzio bizigabea eta organikoa kudeatzea eta tratamendu honen kostua ordaintzea.
7. Laneko arriskuen prebentzioa egitea eta kudeatzea eta mankomunitatearekin koordinatzea.
8. Euren instalazioetan sortzen diren hondakinen (zaborte-gira doazenak) kopurua minimizatzeko lan egitea, hala nola, hondakin organikoen eta ontzi arinak, egurra, plastikoa etab.-en arteko nahasketak.
9. Unean-unean, mankomunitateari bere jardueren, plan estrategikoen eta urteko eboluzioaren berri ematea.

6. Gestionar la fracción inerte y el orgánico a través de infraestructuras de carácter público y pagar el coste de su tratamiento.
7. Desarrollar y gestionar la Prevención de Riesgos Laborales y su coordinación con la mancomunidad.
8. Trabajar para minimizar el volumen de residuos con destino a vertedero generados en sus instalaciones (mezcla de residuos orgánicos con envases, madera, plásticos, etc.)
9. Mantener puntualmente informada a la mancomunidad sobre sus actividades, planes estratégicos y evolución anual.



LAUGARRENA. - Jarraipenaren batzordea

Alderdiek uste dute Hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde bat eratzea komeni dela, honako zereginak izango dituen:

- 
- a) Hitzarmena betetzen dela ziurtatzea, honen ulermenean, betetzean edo burutzean sor daitezkeen zalantzak argituz.
 - b) Bi alderdiek hartutako konpromisoetan hobetzeko arloak aztertzea.
 - c) Interes komuneko gaitan elkarrekin lan egiteko aukera berriak proposatzea.

Jarraipenaren batzordea, besteak beste, lau kidez osatuta egongo da: horietatik bi SAN MARKO MANKOMUNITATEKO lehendakariak izendatuko ditu eta beste biak MERKABUGATI-k. Pertsona horiek erabakitze eta ekiteko gaitasun handia izan beharko dute dagozkien ordezkartzetan. Hala ere, batzordeak landu

CUARTA. - Comisión de seguimiento

Las partes convienen en constituir una comisión de seguimiento del Convenio que se encargará de:

- a) Velar por el cumplimiento del Convenio, resolviendo las dudas que pudieran surgir en cuanto a su interpretación, cumplimiento y ejecución;
- b) Analizar las posibles áreas de mejora en los compromisos adquiridos por ambas partes.
- c) Proponer nuevas posibilidades de colaboración en temas de interés común.

La comisión de seguimiento estará integrada, entre otros, por cuatro miembros, de los cuales dos serán designados por el presidente de la MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS y dos serán designados por MERKABUGATI, personas que deberán tener capacidad decisoria y ejecutiva suficiente en el seno de sus respectivas

beharreko gaien espezifikotasunaren arabera, gai horretan adituak diren profesionalak ere batzordearekin bat egin ahal izango dute, betiere, hitzarekin baina botorik gabe.

Jarraipenaren batzordea kideren batek deialdi bat egitean bilduko da, kide horiek proposatutako gaiak lantzeko.

Jarraipenaren batzordearen bilera egiteko deialdiaren eta bileraren artean bost (5) egun naturaleko epea igaro beharko da.

Jarraipenaren batzordearen deialdiak honela egin daitezke: (i) erregistro elektronikoen edo jakinarazpen elektronikoen bidez, edo, (ii) alderdi bakoitzak adierazitako helbidera posta elektronikoa bat bidaliz eta jaso izanaren adierazpena izanik, beste posta elektronikoa baten bidez edo jasotze-adierazpen baten bitartez.

Jarraipenaren batzordea osatzen duten pertsonak edonoz ordezkatu ahal izango dira, beste alderdiari jakinaraziz, betiere, izendatu berriak San Markos Mankomunitatearen edota MERKABUGATI S.A.-ren ordezkaritza gisa lehen bileran parte hartu aurretik.

Jarraipenaren batzordearen osaera baliozkoa izan dadin, beharrezkoa izango da, gutxienez, erakunde bakoitzaren ordezkaritza bat bertaratzea (aurrez aurre edo behar bezala ordezkatuta).

Saio bakoitza amaitzean, jarraipenaren batzordeak bileraren akta egin ahal izango du, kideren batek hala eskatuta.

Jarraipenaren batzordea, gutxienez, urtean bitan elkartzeko da, hitzarmenaren baldintzen eta, bereziki, laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena egiteko.

Halaber, Jarraipen Batzordeak baloratuko du inguruko asfaltoa mantendu eta konpontzea

representadas. No obstante, lo anterior, en función de la especificidad de los temas a tratar por dicha comisión, podrán incorporarse a la misma, con voz, pero sin voto, expertos y profesionales especializados en la materia de que se trate.

La comisión de seguimiento se reunirá, mediante convocatoria realizada por cualquiera de sus miembros dirigida al resto, para tratar los asuntos que dichos miembros propongan.

Entre la convocatoria de la reunión de la comisión de seguimiento y su celebración deberá mediar un plazo de cinco (5) días naturales.

Las convocatorias de la comisión de seguimiento podrán hacerse (i) mediante el registro electrónico o notificación electrónica, o bien, (ii) mediante correo electrónico dirigido a la dirección de correo que indique cada parte, con acuse de recibo mediante otro correo electrónico o reporte de recepción.

Las personas que integren la comisión de seguimiento podrán ser sustituidas en cualquier momento, notificándolo a la otra parte con carácter previo a la primera reunión en la que el nuevo designado fuera a representar a la Mancomunidad de San Marcos y/o MERKABUGATI S.A., según sea el caso.

Para que la comisión de seguimiento se constituya válidamente será necesaria la asistencia, presentes o debidamente representados, de al menos un representante de cada entidad.

Al término de cada sesión, la comisión de seguimiento podrá levantar acta, a petición de cualquiera de sus miembros.

La comisión de seguimiento se reunirá, al menos, dos veces al año para hacer un seguimiento de las condiciones del convenio y, en particular, de la Prevención de Riesgos Laborales.

Igualmente, la Comisión de Seguimiento valorará como ejecutar y financiar el

nola egin eta finantzatu.

mantenimiento y reparación del asfalto de la zona.

BOSGARRENA: Iraunaldia

Hitzarmena bi alderdiek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean eta hurrengo lau (4) urteetan iraungo du.

Hasierako epe hori edo, paragrafo honen arabera, luzapenak igaro ondoren, Hitzarmena automatikoki berrituko da, urtebeteko gehigarriekin, alderdietako batek aurkako jakinarazpen bat egiten badu izan ezik, gutxienez, Hitzarmenaren edo luzapenen epemuga baino 30 egun naturaleko aurrerapenarekin.

Edonola ere, hitzarmenaren gehieneko epea (luzapenak barne), ezingo da 10 urtetik gorakoa izan, betiere, suntsiarazteko arrazoirik ez badago.

SEIGARRENA: Hitzarmenaren ebazpena

Hitzarmen hau honako arrazoen ondorioz suntsitu ahal izango da:

- Hitzarmenaren iraunaldia igarotzen delako.
- Bi sinatzaileek aho batez hala erabakitzen dutelako.
- Sinatzaileetako batek bere betebeharrak eta konpromisoak bete ez dituelako, 30 egun naturaleko aurre-abisu batekin.

ZAZPIGARRENA: Aplikatu beharreko legedia eta jurisdikzioa

Hitzarmen hau administrazio-zuzenbidearen menpe dago eta honako legeen arabera arautzen da: 33/2003 Herri Administrazioaren Ondareari buruzko Legea; 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplika daitekeen gainontzeko administrazio-zuzenbidea eta, osagarri gisa, zuzenbide pribatua.

Administrazioarekiko auzien ordena izango

QUINTA: Vigencia

El Convenio entrará en vigor el día de su firma por las partes y se mantendrá vigente durante los cuatro (4) años siguientes.

Transcurrido dicho plazo inicial, o cualquiera de sus prórrogas según lo dispuesto en el presente párrafo, el Convenio será renovado automáticamente por periodos adicionales de un año, salvo notificación en contrario de cualquiera de las partes realizada con una antelación mínima de 30 días naturales respecto de la fecha de vencimiento del Convenio o de sus prórrogas.

En todo caso, el plazo máximo del convenio, incluidas prórrogas no podrá sobrepasar los 10 años, siempre y cuando no se de una causa de resolución.

SEXTA: Resolución del Convenio

El presente Convenio podrá ser resuelto por las siguientes causas:

- Por el transcurso del plazo de vigencia del convenio.
- El acuerdo unánime de los dos firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes, con un preaviso de 30 días naturales.

SÉPTIMA: Legislación aplicable y jurisdicción

El presente Convenio queda sometido al derecho administrativo, y se regula según la Ley 33/2003 del Patrimonio de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y el resto de derecho administrativo aplicable y, supletoriamente, por el derecho privado.

El orden jurisdiccional contencioso

da Hitzarmen honetatik eratorritako zalantzak ezagutzeko eta argitzeko eskuduna.

administrativo será el competente para conocer y resolver las cuestiones litigiosas que se deriven del presente Convenio.

Ezarriarekiko adostasuna adierazteko, Hitzarmen honetan agertzen diren pertsonen sinatzen dute, bina aletan, goiburukoan adierazitako lekuan eta egunean.

En prueba de conformidad con lo establecido, firman las personas comparecientes el presente Convenio en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**San Marko Mankomunitatearen izenean /
Por la Mancomunidad de San Marcos,**

**Merkabutati S.A.ren izenean,
En representación de Merkabugati S.A.**

Loreto Osa Ocón
Mankomunitateko Lehendakaria
Presidenta de la Mancomunidad



sanmarko
Gasteiz, 10, 20018 Donostia
Tel 943 214 977

José Antonio Ibañez Parduales
Presidente del Consejo
MERKABUGATI S.A.



**Nire, Mankomunitateko idazkaria naizen honen aurrean/
Ante mí, el secretario de la Mancomunidad,
Sin/Fdo.: Xabier Loiola Aristi**



sanmarko
Gasteiz, 10, 20018 Donostia
Tel 943 214 977

